

GIPUZKOAKO BAZKUNDEAK OSOKO BILKURA OSPATU ZUEN 2020KO JARDUERAK ETA 2021EKO EKINTZA EREMU NAGUSIAK AURKEZTUZ

- *Hainbat sektoretako 60 enpresa eta elkartek osatzen dute Gipuzkoako Ganberako Osoko Bilkura*
- *2020an prestakuntza, enplegua, nazioartekotzea, merkataritza aholkularitza, merkataritza sektorean eta Arbitraje Auzitegian lan egin dugu.*
- *2021eko jarduera-ildo nagusiak hauek izango dira: prestakuntza, pertsonen enplegarritasuna, digitalizazioa, Gipuzkoako Mugikortasun Elektroaren Foroa, azpikontratatzeko Europako merkatuak finkatzea eta nazioartekotzea.*



Donostia – 2020ko azaroaren 27a – Gipuzkoako Bazkondeak Osoko Bilkura egin zuen joan den asteartean, azaroak 24, eta bertan lurraldeko ekonomiaren hainbat sektore ordezkatzeko 60 enpresek parte hartu zuten.

Osoko Bilkurako kideei 2020. urteko jardueraren laburpena eman zitzaien, jarduera-esparru nagusiak prestakuntza, enplegua, nazioartekotzea, merkataritza aholkularitza, merkataritza sektorea eta Arbitraje Auzitegia izan ziren.

Era berean, 2021. urterako ardatz nagusiak aurkeztu ziren, hauek izango dira: prestakuntza - pertsonen garapena eta enpresen parte-hartzea, 45 urtetik gorako langileen enplegarritasuna, ERTEan dauden pertsonen birkalifikazioa, negozio eta merkataritza digitalizatzea, Mugikortasun Elektroaren Gipuzkoako Foroa, azpikontratatzeko Europako merkatuak finkatzea eta nazioartekotzea.

Osoko Bilkurari amaiera emateko, aurkezpen bat egin zen COVID 19ak Gipuzkoako ekonomian sektoreen arabera izaten ari den eraginaz eta enpleguan izaten ari den eraginaz. Txertoa hartzeko aukera gero eta gertuago dago, jarduera berreskuratzeko itzaropen garrantzitsua suposatuz baina berrezkurapena sektorearen arabera desberdina izango da.

Gipuzkoako Bazkondeak gure Osoko Bilkuran parte hartzen duten enpresen hurbiltasuna eta eskuragarritasuna eta gure estrategia definitzerakoan egindako ekarpenen kalitatea eskertu nahi du.

Enpresari eta tokiko merkataritzari ematen diegun laguntza mezua berresten dugu, egoera zail honetan elkarri laguntzeko, 2021eko lehen zatian nabarmen hobetuko delakoan egoera.

ACTIVIDAD 2020



Informazio gehiago:
Iñaki Ucin
iucin@camaragipuzkoa.com
943 000 310 / 688884347